

_____ FORU DEKRETUA, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomikoa arautzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak, abuztuaren 10ekoak, 47. artikuluan ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateari dagokiola hezkuntza arautzeko eta administratzeko eskumen osoa, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren eta Estatuaren eskumen diren lege organiko guztien manuetan ezarritakoaren arabera.

Abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuak Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren arloko eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatu zituen. Ondorioz, Foru Komunitateak bere gain hartu zuen unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko anitzen funtzionamendu ekonomikoaren kudeaketaren ardura, eta hori antolatzeko, uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretua onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen funtzionamenduaren ondoriozko diru-sarrera eta gastuen araubidea ezarri zuena.

Foru dekretu horrek indarra du hogeita hamar urte igaro ondoren ere, eta oso baliagarria izan da unibertsitatez kanpoko ikastetxeek egindako kudeaketa ekonomikorako. Hala ere, oso komenigarria da ikastetxeen kudeaketa ekonomikoa arautuko duen foru dekretu berri bat onartzea, kudeaketa hori eguneratu eta egungo lege esparrura egokitu ahal izateko.

Zentzu horretan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arreta berezia jartzen du ikastetxeen autonomian, bai arlo pedagogikoari dagokionez, bai beren baliabideen kudeaketa ekonomikoari dagokionez ere.

Hain zuzen ere, aipatutako Lege Organiko horren 123. artikulua aitortzen du ikastetxeek autonomia izanen dutela beren kudeaketa ekonomikoan, Lege Organiko horrek berak, eta orobat, hezkuntza administrazio bakoitzak ezartzen dituzten araudien arabera.

Kudeaketa ekonomikoaren autonomia bitarteko egokia da hezkuntzaren kalitatea hobetzeko, eta funtsean adierazten du ikastetxeek arduraz erabiliko dituztela funtzionatzeko beharrezkoak dituzten bitarteko guztiak, beren helburuak lortu ahal izan ditzaten.

Hezkuntza administrazioen betebeharra da ikastetxeak hornitzea kalitateko irakaskuntza eskaintzeko eta hezkuntza sisteman sartzeko aukera berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren hezkuntza, profesional eta material arloetako baliabideez. Gainera, ikastetxeen autonomia sustatu behar dute, beren baliabideez erantzuteko eta bideragarritasuna emateko beren hezkuntza proiektuei.

Foru dekretu honek ekartzen duen alderdi garrantzitsuenetako bat da diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuen egitura eguneratzea eta homogeneizatzea, ikastetxe publiko guztien azpikontuen mailan, eta horrekin batera, kudeaketa ekonomikorako software bat ezarri du, nahitaez erabili beharrekoa, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko guztientzat. Tresna informatiko horrek, gainera, bitarteko

elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera sustatzeko aukera emanen du, transmisio elektronikoaren ohiko bitarteko arin eta errazak izan daitezzen, kudeaketa kontuak igortzeko.

Foru dekretu honen testuak bederatzi kapitulu, bost xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen jasotzen ditu.

I. kapituluan, "Xedapen orokorrak" izenburuarekin, azaltzen dira helburua eta aplikazio esparrua, ikastetxeen kudeaketa ekonomikoaren autonomia eta kudeaketa horren eskumena duten organoak.

II., III. eta IV. kapituluetan ikastetxeen aurrekontua lantzen da, eta arautzen dira haren definizioa, prestaketa eta onarpena, egitura, edukia eta egikaritzea.

V. kapituluak ikastetxeen kudeaketa kontuak arautzen ditu, eta kontuak emateko bi kudeaketa kontu ezartzen dira urtaldi bakoitzeko.

VI. kapituluan arautzen dira euskarri informatikoa, kontu eragiketen erregistroa eta informazioaren igorpena Hezkuntza Departamentura.

VII. kapituluan arautu eta azaltzen da diruzaintzaren kudeaketa.

VIII. eta IX. kapituluek arautzen dituzte prezio eta tasa publikoak, hurrenez hurren, zehaztuz, alde batetik, prezio publikoen zenbatekoa finkatzea Hezkuntza Departamentuaren titularraren eskumena dela, eta bestetik, tasak direla

Nafarroako Foru Komunitatearen eta bertako autonomia erakundeen tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legean ezarritakoak, eta horien bidez bildutako dirua sartuko dela banku-kontu berezi batean.

Foru dekretuak bost xedapen gehigarri ditu, honako hauek arautzen dituztenak: ikastetxeak sortu eta ixten direnean izaten diren egoera bereziak; ikastetxeetan zenbait figura ez dagoenean horren eskumena duten organo baliokideak; dokumentazioaren artxiboa eta zaintza; 2022ko abuztuaren lehen Hezkuntza Departamentuan inskribatuta dauden Haur Eskolen kudeaketa ekonomikoari dagokionez Departamentuak garatu beharreko araudi espezifikoa; eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoen eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bakarrik ematen duten institutuen tasak sartzeko banku-kontuen deuseztapena.

Foru agindu hau amaitzen da xedapen indargabetzaile bakar batekin, orain arte aplikatzen zen araudia indargabetzeko, eta bi azken xedapenekin, foru dekretu hau garatzeko ahalei buruzkoa, bata, eta bestea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean indarra hartzeari buruzkoa.

Horiek horrela, Nafarroako Eskola Kontseiluaren alde aurreko txostena ikusirik eta Nafarroako Kontseiluarekin bat, Hezkuntza kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak 2022koan eginiko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

Horrenbestez, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2022ko.....an egindako bilkuran harturiko erabakiarekin bat, dekretatu dut:

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio esparrua

1. Foru dekretu honen xedea da ikastetxe publikoek eskura dituzten baliabideen kudeaketa ekonomikoa arautzea eta garatzea.

2. Foru dekretu hau aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko Hezkuntza Departamentuaren menpeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko guztietan.

Ikastetxe publikoak dira titulartasun publikokoak direnak eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotzen diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak eskaintzen dituztenak, eta orobat, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko Hezkuntza Departamentuak erregelamendu bidez zehazten ahal dituen zentro publikoak.

Era berean, aplikazio esparru horretan sartzen dira Irakasleari Laguntzeko Zentroak, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa (NHBBZ) eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ).

2. artikulua. Kudeaketa ekonomikorako autonomia

1 Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko Hezkuntza Departamentuaren menpeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoek beren baliabide ekonomikorako autonomia izanen dute.

2. Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen autonomia era honetan definitzen da: ikastetxe bakoitzak bere aurrekontu eta baliabide ekonomikoak arduraz administratzea eta egikaritzea, bere hezkuntza proiektuan ezarritako helburuak bete eta kalitateko zerbitzu publikoa eskaintzea lortu ahal izan dezan.

3. artikulua. Organo eskudunak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko ekonomia eta ogasun gaietan eskuduna den Departamentuari edo Nafarroako Kontuen Ganberari egokitzen ahal zaizkien finantzen kontrola eta auditoretza eginkizunak ukatu gabe, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomikoaren gaian eskudunak dira, orobat, ikastetxe bakoitzeko Eskola Kontseilua, ikastetxeko zuzendaria, ikastetxeko idazkaria, eta Hezkuntza Departamentuan ezar litezkeen administrazio unitateak.

2. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskumen hauek izanen ditu:

a) Ikastetxearen aurrekontua eta haren aldaketak onestea.

b) Efikaziaren jarraipena egitea baliabide ekonomikoen kudeaketan

c) Ikastetxearen kudeaketa kontuak onestea.

3. Ikastetxeko zuzendariak, ikastetxeko idazkariaren laguntzaz, ondoko eskumen hauek izanen ditu:

a) Ikastetxearen aurrekontuen proiektua eta haren aldaketen proposamenak prestatzea eta aurkeztea Eskola Kontseiluari, hark onar ditzan.

b) Ikastetxearen kudeaketa kontuak prestatzea eta Eskola Kontseiluari aurkeztea, hark onar ditzan.

c) Aurrekontua eta kudeaketa kontuak bidaltzea Hezkuntza Departamentuari.

d) Diru-sarrerak administratzea.

e) Kontratazioak egitea ikastetxearen izenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontratazioaren arloan duen araudia betez.

f) Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea.

4. Kontseiluko idazkariak eskumen hauek izanen ditu:

a) Ikastetxeko zuzendariarekin lankidetzan aritzea ikastetxearen aurrekontuaren proiektua eta hartan egin beharreko aldaketen proposamenak prestatzen.

b) Ikastetxeko zuzendariarekin lankidetzan aritzea ikastetxeko kudeaketa kontuen prestaketan.

c) Ikastetxeko gastuen eta diru-sarreraren kontabilitatea eramatea.

d) Ikastetxeko kudeaketa ekonomikoari dagokion dokumentazio administratiboa zaintzea, foru dekretu honen VIII. kapituluan ezarritakoa betez.

II. KAPITULUA. Aurrekontua. Definizioa, prestaketa eta onespena.

4. artikulua. Definizioa.

1. Ikastetxe publikoen aurrekontua ekonomiaren planifikaziorako tresna da, honela definituta: bere funtzionamendurako ikastetxeak onartzen ahal dituen gehieneko betebeharren eta betebeharr horiek finantzatzeko aurreikusten dituen diru-sarreraren adierazpen zifratua, bateratua eta sistematikoa da. Diru-sarrerek estimazioaren izaera dute, eta gastuak, berriz, mugatzaileak dira.

2. Ikastetxearen aurrekontuak gastu guztiak hartuko ditu barne, bai ohiko funtzionamenduari dagozkionak, bai komenigarriak izaten ahal diren inbertsioei dagozkienak ere, eta gastu horiei aurre egiteko aurreikusten diren diru-sarrerak ere bai, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera; diru-sarrera horien zenbateko osoa, gehi aurreko urteko diru-gerakina, izanen dira gehieneko gastu gaitasuna.

5. artikulua. Aurrekontuaren indarraldia.

Ikastetxe publikoen aurrekontu-ekitaldia urte naturala izanen da, eta haren indarraldia urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartekoa.

6. artikulua. Aurrekontu oreka.

Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua hasierako defizit gabe aurkeztu behar da, eta aurreko ekitaldiko gerakina gehi aurreikusten diren diru-sarrerak batuta, ekitaldi berrirako aurreikusten diren gastuen zenbateko osoaren parekoak edo gehiago izanen dira. Gainera, oreka horri eutsi behar zaio ekitaldi osoan eta aurrekontuen egikaritzan.

7. artikulua. Prestaketa, onspena eta aldaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko urteko ekitaldi berriko aurrekontuen proiektua onetsi ondoren, ikastetxeei jakinaraziko zaie beren funtzionamendu gastuetarako esleituko zaizkien baliabideetarako aurreikusten den zenbatekoa.

2. Ikastetxeko aurrekontuen proiektua, oro har, ekitaldi ekonomikoaren hasieran prestatuko da, eta Eskola Kontseiluari aurkeztuko zaio, hark aztertu, aldatu eta onetsi dezan, aurrekontu ekitaldi berriko urtarrilaren 31 baino lehen.

3. Otsailaren 15a baino lehen, onetsitako aurrekontua aurkeztuko zaio Hezkuntza Departamentuan ikastetxeen kontabilitatearen kudeaketan ardura duen organo eskudunari. Aldaketarik erantsi ez bazaio hilabeteko epean, aurrekontua automatikoki balioztatutzat joko da. Nolanahi ere, ikastetxeari jakinaraziko zaizkio aurrekontuaren gaineko oharra, Eskola Kontseiluak aurrekontu berria onar dezan.

4. Aurrekontu berria onartzen ez den bitartean, aurreko urteko aurrekontua automatikoki luzatuko da, urtearen hasieran. Ikastetxeko zuzendaritzak soilik baimentzen ahalko ditu funtzionamendurako ezinbestekotzat jotzen diren ordainketak, aurreko ekitalditik heldu den gerakinaren kargura, edo ekitaldi horretan lortutako diru-sarreraren kargura.

5. Aurrekontua aldatzen ahalko da, onartzeko ezarritako prozedura bera betez.

III. KAPITULUA. Aurrekontuaren egitura eta edukia

8. artikulua. Aurrekontuaren egitura.

1. Diru-sarrereren eta gastuen egitura Hezkuntza Departamentuak horretarako gaitu duen aplikazio informatikoan ezarritako ereduaren arabera izanen da.

2. Diru-sarrera eta gastuen egitura itxitzat eta bete beharrekotzat jotzen da, azpikontuen mailan, ikastetxe publiko guztientzat. Hala ere, ikastetxeek azpikontuak bereizten ahalko dituzte azpikontu osagarrietan, diru-sarrereren eta gastuen aplikazio egokirako beharrezkoak ikusten direnean.

9. artikulua. Aurrekontuaren edukia.

Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoen aurrekontuak honako informazio hauek jasoko ditu:

- a) Aurreko urteko ekitaldia ixtean geratutako gerakina.
- b) Aurreikuspenen arabera lortuko diren diru-sarrereren egoera-orria.
- c) Aurrekikusitako gastuen egoera-orria.

10. artikulua. Aurreko ekitaldiko gerakina.

Gerakin osoa ekitaldiaren itxieran osatuko da kudeaketaren kontu korrontearen saldoa eta kutxako saldoa batuta.

Gerakina banatuko da bi gerakin bereiziz: eragindako gerakina, xede espezifiko baterako esleitutako ekarpenen saldoak osatzen duena, eta libre eskuratzeko gerakina, gerakin osoaren eta eragindako gerakinaren arteko aldea adierazten duena.

Gerakin hori baliabide gisa agertuko da hurrengo ekitaldiko aurrekontuan eta, oro har, ikastetxearen funtzionamendu operatiboaren gastuak finantzatzera bideratuko da, betiere errespetatuz eragindako gerakina bideratzen dela bere xede espezifikotara.

11. artikulua. Diru-sarreraren egoera-orriaren edukia.

Aurrekontuaren diru-sarreraren egoera-orria sailkatuko da haren jatorriaren arabera, eta bertan jasoko dira ikastetxearen irakas jarduera aurrera eramateko ekitaldi horretan aurreikusten diren diru-sarrerak guztiak.

Diru-sarreraren egoera-orrian jasoko dira:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ekitaldi bakoitzean Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen baliabideak, bai funtzionamendu gastuetarako, bai bestelako gastuen finantzaketarako.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko beste hainbat Departamentutan ekitaldi bakoitzerako Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ezartzen diren baliabideak.

c) Beste zenbait administrazio publikoren, Europako Batasuneko Erakundearen edo nazioarteko beste erakundearen baliabideak, eta orobat, bere jarduerak eragiten dituen gastuei aurre egiteko irabazi asmorik gabeko erakundeetatik eskuratzen ahal dituen diru-sarrerak.

d) Ikastetxe publikoek beren kudeaketa autonomia baliatuz lortzen ahal dituzten bestelako baliabideak.

12. artikulua. Gastuen egoera-orriaren edukia.

1. Ikastetxearen aurrekontuko gastuen egoera-orria sailkatuko da haien izaeraren arabera, eta jasoko du programa zentralizatuetan jasotzen ez diren funtzionamendu normala, mantentze lana eta kontserbazioa bermatzeko betebeharrak finantzatzeko xedea duten kredituen multzoa, hala nola ekitaldi horretan aurreikusten diren inbertsioak ere.

2. Gastuen egoera-orrian jasoko dira:

a) Ikastetxearen jarduerak eta funtzionamendurako beharrezkoak diren ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.

b) Testu liburuak edo haien baliokide digitalak eta behar den material didaktiko osagarria edota hezkuntza programak erosteko diren gastuak eta bestelako gastuak, arategi espezifikoak ezartzen dituen irizpideen arabera, finantzaketa lotukoak badira.

c) Egoera txarrean dauden ondasunen erabilgarritasuna luzatzeko mantentze lanerako edo berritzeko xedez egiten diren inbertsioak finantzatzeko gastuak.

d) Ikastetxearen erabilera orokorrerako edo erabilera espezifiko baterako inbentarioan jasotzen ahal diren ekipamendu eta materialak erosteko gastuak.

3. Aurrekontuan sartzen ahalko dira c) eta d) letretan jasotako gastuak, beti ere estalita badaude funtzionamendu

normalerako aurreikusten diren premia guztiak, eta ikastetxeak haiei aurre egiteko baliabide aski badu.

13. artikulua. Hezkuntza Departamentuaren funtsen igorpenak.

Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen aurrekontuko kredituen kargura ikastetxearen funtzionamendurako diren gastuetarako esleitutako zenbatekoak hiru epetan libratuko dira, gutxienez %30 ordainduta otsaila bukatu aurretik, %30 maiatza bukatu aurretik, eta gainerakoa iraila bukatu aurretik ordaintzekoa, galarazi gabe egin daitezkeen beste ekarpen puntual batzuk.

Era berean, ekarpena doitzen ahalko du Hezkuntza Departamentuak, ikastetxeen gaitasun ekonomikoaren arabera.

14. artikulua. Egoitza toki entitateen jabegoko eraikinetan duten ikastetxeak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 15. xedapen gehigarriaren arabera, egoitzaren jabe den udalari dagozkio Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak kontserbatu, mantendu eta zaintzeko gastuak.

Horregatik, egoitza toki entitateen eraikinetan duten Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko ikastetxeek beren aurrekontuetan jasoko dituzte eraikinen mantentze, kontserbazio eta zaintza lanei ez dagozkien gastuak, besterik ez.

IV. KAPITULUA. Aurrekontuen egikaritza

15. artikulua. Aurrekontuen egikaritza.

1. Ikastetxeko zuzendaria da aurrekontuen araberako gastuak baimentzeko eta ordainketak agintzeko eskumena duen organoa. Ez du gasturik baimentzen ahalko aurrekontuetan esleitutako kredituen zenbatekoaren gainerik, ez eta ordainketarik agindu ere baliabideen gainerik, eta erabat deusezak izanen dira arau hori urratzen duten egintza administratiboak, haietatik ondorioztatzen ahal diren legezko erantzukizunak ukatu gabe.

2. Aurrekontuen egikaritzan jasoko dira ekitaldi horretan egiaz bildu diren diru-sarrerak guztiak, eta egindako eta ordaindutako gastu guztiak ere bai, eta kutxako irizpideei jarraikiz kontabilizatuko dira.

3. Diru-sarrerekin batera jasoko dira haien zilegitasuna egiaztatuko duten agiriak, Hezkuntza Departamentutik jasotako diru-sarreraren kasuan izan ezik, horiek modu automatikoa erregistratuko baitira ikastetxe bakoitzaren kontabilitatean, Departamentuak horretarako ezarritako transakzioaren bidez.

4. Gastuekin batera haien justifikazioa egiaztatzen duten agiriak jaso behar dira, gehienetan fakturak.

5. Ikastetxeek ez dute langile gasturik jasotzen ahalko.

6. Ez da onartuko ordainketa atzeratzerik, ez eta zatikatzerik ere.

7. Zerbitzu profesionalen ordainketa egin behar denean hizlari, artista eta abarren kasuan, PFEZ atxikipena egin behar da, ikastetxearen izenean emandako fakturaren edukiaren arabera. Egindako atxikipenak arautegi espezifikotan ezarritako epeetan kitatuko dira, eta Nafarroako Ogasunean sartuko dira.

8. Ikastetxeek ez dute inoiz dirulaguntzarik edo diru-saririk ematen ahalko.

9. Ez da finantzatzen ahalko toki erakundeek bete beharreko zerbitzu eta betebeharren gasturik.

V. KAPITULUA. Kudeaketa kontuak

16. artikulua. Kontuak ematea.

1. Ikastetxeen kontu ematea gauzatuko da bi kudeaketa kontutan ekitaldi bakoitzean, eta haietan jasoko da aurrekontuaren egikaritzea, arestiko artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Lehenengo kudeaketa kontua ekaineko bigarren hamabostaldian igorri behar du ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Departamentura, aldez aurretik Eskola Kontseiluak onartuta.

3. Bigarren kudeaketa kontuak ekitaldi horretako aurrekontuaren eragiketa guztiak jasoko ditu (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra) eta ikastetxeko zuzendariak igorriko du Hezkuntza Departamentura, hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, aldez aurretik Eskola Kontseiluak onartuta.

4. Eskola Kontseiluak kudeaketa kontua ez onartuta ere, Hezkuntza Departamentura igorriko da, eta hari atxikiko zaio batzarraren akta, erabaki hori ekarri duten arrazoiak jasoko dituen. Hezkuntza Departamentuak hartuko du behar den erabakia, egokia bada.

VI. KAPITULUA Euskarri informatikoa, kontabilitatea, kontabilitate eragiketen erregistroa eta informazioa igortzea.

17. artikulua. Kontabilitate programa

Aurrekontua prestatzea, diru-sarreraren eta gastuen kontabilitate eragiketen erregistroa, eta kudeaketa kontua prestatzea eta azaltzea Hezkuntza Departamentuak horretarako gaituko duen sistema informatikoaren bidez egingen da.

18. artikulua. Kontabilitatea eta kontabilitate eragiketen erregistroa.

Ikastetxearen funtsen mugimendua dakarren edozein eragiketa (kobrantsa nahiz ordainketa) kontabilitate programan jasoko da.

19. artikulua. Informazioa igortzea

Aurrekontua eta kudeaketa kontuak igortzea euskarri informatikoan egingen da, horretarako ezarritako transakzioaren bidez, haien jatorria eta edukia bermatzeko moduan.

VII. KAPITULUA. Diruzaintzaren kudeaketa

20. artikulua. Kudeaketaren banku-kontua

1. Ekonomia eta ogasunean eskumena duen Departamentuak kudeaketaren banku-kontu bat irekiko du finantzaketa entitate batean, Hezkuntza Departamentuaren bidez, eta ikastetxearen eskura jarriko da; han jasoko dira aurrekontuaren egikaritzatik sortzen diren kobrantza nahiz ordainketa guztiak.

2. Banku-kontu horrek ez du saldo negatiboa izaten ahalko.

3. Kudeaketaren banku-kontua deuseztatzea ekonomia eta ogasunean eskumena duen Departamentuak izapidetuko du, Hezkuntza Departamentuaren eskaera jaso ondoren.

21. artikulua. Eskudirua erabili ahal izatea

1. Ikastetxeek eskudirua baliatzen ahalko dute kantitate txikiko ohiko gastuei aurre egiteko. Zenbateko hori, eskudirutan nahiz aurreordainketa-txartelaren bidez, ezin da 500 eurotik gorakoa izan, justifikazio egokirik izan ezean. Horretarako, ikastetxeko zuzendariak eskaera arrazoitua igorriko du Hezkuntza Departamentuan ikastetxeen kontabilitatearen kudeaketan eskumena duen organo eskudunera, eta hark baietsi edo esetsiko du eskaera.

2. Haren mugimenduak era egokian erregistratu eta justifikatuko dira kontabilitate sisteman.

22. artikulua. Funtsak erabiltzea

1. Ikastetxeen banku-kontuen kargura egiten diren ordainketak, oro har, banku-transferentzia bidez egingen dira.

2. Kontu korrante baliagarri baten funtsak erabiltzeko, horretarako baimena duten pertsonen sinadura bateratua beharko da.

3. Banku-kontuan eragiketak egiteko gaitasuna duten pertsonak ondoko hauek izanen dira:

a) 6 eskola unitate edo gehiagoko ikastetxeetan, ikastetxeko zuzendaria eta idazkaria izanen dira, edo zuzendaritzako taldekide bat, zuzendariak izendatuko duena.

b) 2 eta 5 bitarteko eskola unitate dituzten ikastetxeetan, ikastetxeko zuzendaria eta berak proposatutako irakasle bat izanen dira.

c) Unitate eskola bakarreko ikastetxeetan, ikastetxeko zuzendaria izanen da baimendutako pertsona.

4. Irakasleari Laguntzeko Zentroetan banku-kontuan eragiketak egiteko gaitasuna izanen dute zentroko zuzendariak eta ILZ aholkulari kargua duen pertsona batek, zuzendaritzak proposatua.

5. Helduen Hezkuntza Zentroetan eta Baliabide Zentroetan, banku-kontuan eragiketak egiteko gaitasuna izanen dute zentroko zuzendariak eta ikastetxeko irakasle batek, zuzendaritzak proposatua.

23. artikulua. Banku-helbideratzea

Banku-helbideratzeak soilik egiten ahalko dira ur, berogailu eta energia elektrikoaren horniduren ordainketetan.

VIII. KAPITULUA. Prezio publikoak

24. artikulua. Prezio publikoen definizioa

Prezio publikoak diruzko kontraprestazioak dira, zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ordaintzen direnak, baldin eta, zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuan ere eskaintzen badira eta administratuek beren borondatez eskatu behar badituzte, Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko 2/2021 Foru Legean ezarritako moduan.

25. artikulua. Prezio publikoak ezartzea.

Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legean ezarritakoarekin, eta otsailaren 19ko 24/2014 Foru Dekretuarekin bat, haren bidez ezartzen baita Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen zein zerbitzu eta jardueratan eskatzen ahal diren prezio publikoak, Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetan eskaintzen diren jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzea Departamentu horren titularraren eskumena izanen da.

IX. KAPITULUA. Tasak

26. artikulua. Tasen definizioa.

Tasak dira Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legearen 10. artikuluan definitzen diren tributuak.

27. artikulua. Tarifak.

Tasa administratiboen tarifak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legean ezartzen direnak.

28. artikulua. Tasen banku-kontua.

1. Ekonomia eta ogasunean eskumena duen Departamentuak kudeaketaren banku-kontu bat irekiko du finantzaketa entitate batean, Hezkuntza Departamentuaren eskariz, eta ikastetxearen eskura jarriko da tasak biltzeko.

2. Banku-kontu berezia gaituta duten ikastetxeek sortutako tasen bilketa sartuko dute kontu mugatu horretan.

3. Tasen kontu korrontean baimendutako pertsonak kudeaketaren kontu korrontean eragiketak egiteko baimena duten pertsona berak izanen dira.

4. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik ematen duten institutuek kudeaketaren kontu korrontean sartuko dute tasekin bildutakoa.

5. Salbuespenez, subjektu pasiboak tasa eta prezio publikoak aldi berean ordaintzen dituen ikastetxeetan,

bildutakoa tasen kontu korrontean sartzen ahalko da, eta ondoren, dagokion zenbatekoaren intsuldaketa egin, kudeaketaren kontu korrontera. Funtsen intsuldaketa egin aurretik, txosten zehatza eman behar du ikastetxeko zuzendariak.

29. artikulua. Likidazioa.

1. Tasa administratiboen bilketen kitapena ikastetxe guztien betebeharra izanen da.

2. Tasen kitapena urtero egingen da, sei hileko aldietan, Nafarroako Foru Ogasunaren Diruzaintzan sartuta bildutako funtsak, dagokion ordainketa-gutuna eman ondoren. Lehenengo kitapena urtarriletik ekainera bitarteko aldiari dagokio, eta bigarrena uztailetik abendura bitarteko aldiari.

30. artikulua. Informazioa ematea.

1. Kitatutako tasen bilketari buruzko informazioa nahitaez bidali behar dute ikastetxe guztiek.

2. Bilketaren zehaztasuna, ordainketa-gutunarekin batera, sei hilabetetik behin igorriko da Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeen kontabilitatearen kudeaketan eskumena duen organora, kitapena egin ondoren, horretarako gaitutako aplikazio informatikoaren bidez. Dirurik batere bildu ez bada ere, igorpena berdin egingen da, egoera hori azalduz.

3. Kitatutako tasen agiri-euskarriak artxibatu eta zainduko ditu ikastetxeak.

4. Informazioa aldiaren behin igortzeko betebeharra betetzeaz gain, dokumentazioa Hezkuntza Departamentuaren, ekonomia eta ogasun gaietan eskumena duen Departamentuaren eta Nafarroako Kontuen Ganberaren eskura egonen da.

Lehen xedapen gehigarria. Ikastetxeak sortu eta ixteko egoera bereziak.

1. Ikastetxe sortu berrietan, Eskola Kontseilua edo organo baliokideren bat eratu ez bada, ikastetxeko zuzendaritza daramaten irakasleek onetsiko dute aurrekontua.

2. Ikastetxeak ixten direnean, kontabilitate mugimendurik izan bada azken kudeaketa kontua onetsi eta aurkeztu zenetik, kudeaketa kontuaren behin betiko itxiera Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeen kontabilitatearen kudeaketan eskumena duen organoak burutuko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Organo baliokideak.

Foru dekretu honetan Eskola Kontseilua aipatzen denean, lanbide heziketako ikastetxe integratuen kasuan, Gizarte Kontseilua aipatzen dela ulertuko da.

Era berean, foru dekretu honetan ikastetxeko zuzendaritza eta Eskola Kontseilua aipatzen direnean, bestelako zentron kasuan, haien baliokide diren organoak aipatzen direla ulertuko da.

Ikastetxean idazkaritzarik ez dagoen kasuetan, eginkizun horiek ikastetxeko zuzendariak beteko ditu.

Hirugarren xedapen gehigarria. Dokumentazioa artxibatzea eta zaintzea

Ikastetxeen kontabilitate kudeaketaren ardura duten organoek artxibo bat gordeko dute; han jasoko dituzte aurrekontu guztiak eta haien egikaritzari dagozkion diru-sarrera eta gastu guztien agiri euskarriak, kudeaketa kontua, eta haren kudeaketa ekonomikoari dagozkion administrazio dokumentu guztiak ere.

Ikastetxeko kudeaketa ekonomikoari buruzko informazioa aldiari behin igortzeko betebeharra betetzeaz gain, dokumentazioa Hezkuntza Departamentuaren, ekonomia eta ogasun gaietan eskumena duen Departamentuaren eta Nafarroako Kontuen Ganberaren eskura egonen da.

Laugarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Departamentuari atxikitako Haur Eskolak.

Hezkuntza Departamentuari 2022ko abuztuaren leian atxikirik dauden Haur Eskolen kudeaketa ekonomikoa hezkuntza Departamentuak eramanen du, haien kudeaketaren berezitasunei buruzko azterketa eta ebaluazioa egin ondoren.

Bosgarren xedapen gehigarria. Tasen banku-kontuak deuseztatzea.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik ematen duten institutuen tasak sartzeko banku kontuen deuseztapena egiteko sei hileko gehieneko epea dago, foru dekretu honek indarra hartzen duenetik.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako arauak.

Honen bidez indargabetzen da Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen funtzionamenduaren ondoriozko diru-sarrera eta gastuen araubidea arautzen duen uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretua, eta halaber, foru dekretu hau eragozten ahal duten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu bidez garatzea.

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza Departamentuko titularrari foru dekretu honetan ezarritakoa garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.